

Murgiltze Astea. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslegaien hizkuntza-kontzientzia kritikoa pizteko esku-hartze ikerketa

Garbiñe Bereziartua Etxeberria

Euskal Herriko Unibertsitatea EHU
garbine.bereziartua@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0003-4987-3315>

Miren Artetxe Sarasola

Euskal Herriko Unibertsitatea EHU
miren.artetxe@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-7067-0179>

DOI: <https://doi.org/10.55714/BAT-136.2>

Sarrera-data: 2025/03/13; Ebaluazioak: 2025/04/05 - 2025/10/03; Onartze-data: 2025/10/06

Zitatzeko modu gomendatua:

Bereziartua, Garbiñe, eta Miren Artetxe Sarasola. 2025. "Murgiltze Astea. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslegaien hizkuntza-kontzientzia kritikoa pizteko esku-hartze ikerketa". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 136: 39-60. <https://doi.org/10.55714/BAT-136.2>

CC BY-SA 4.0

Laburpena

Hizkuntza gutxituen testuinguruetan garrantzitsua da hizkuntza-kontzientzia kritikoa izatea, are gehiago erreferente linguistiko izango diren horien kasuan. Horretarako ahalegin bat da, hain zuzen ere, orriotan aurkezten duguna. Irakasle izateko ikasketak egiten ari diren ikasleak izan dira esku-hartze ikerketa honetako parte-hartzaileak (UPV/EHUren Donostia-ko campusean Lehen Hezkuntza ikasten hasi ziren 120 ikasle). Eta, besteak beste, hizkuntza-kontzientzia kritikoa garatzeari begira diseinatutako Murgiltze Astea parte hartu zuten 2024-2025 ikasturtearen hasieran. Orriotan esku-hartzearen nondik norakoen berri ematen da, batetik; bestetik, esku-hartzean zehar galdetegi bidez jasotako emaitzak aurkezten dira. Emaitzetan ikusi dugunez, Murgiltze Astea baliagarria izan da bere neurrian, baina komenigarria da honelako esku-hartze baten diseinua gradu osoa barnebiltzen duen plan zabalagoarekin osatzea.

Gako-hitzak: Hizkuntza-mudak, hizkuntza-kontzientzia kritikoa, esku-hartze ikerketa, unibertsitatea.

Summary

In minority language contexts, it is important to have a critical linguistic awareness, especially in the case of those who will be linguistic referents. An effort for this is precisely what we present in these pages. The participants in this intervention study were students studying to become teachers (120 students who started studying Primary Education at the UPV/EHU San Sebastian campus). Among other things, they participated in the Immersion Week designed to develop a critical linguistic awareness at the beginning of the 2024-2025 academic year. On the one hand, the pages report on the progress of the intervention; on the other hand, the results obtained through questionnaires during the intervention are presented. As we have seen in the results, the Immersion Week has been useful in its magnitude, but it is advisable to complement the design of an intervention like this with a broader plan that includes the whole degree.

Keywords: Language changes or *mudes*, critical linguistic awareness, intervention research, university.

**Lan honetan
muda erabiliko
dugu bere
zentzurik
zabalenean,
hiztun elebidun
edo eleaniztun
baten hizkuntzen
erabilera-
ohituretan
gertatzen
den aldaketa
esanguratsua
izendatzeko.**

SARRERA

I Unibertsitateko garaia, bizitzako aro berezi bat izateaz gain, potentzialtasun handia daukan une eta gune bat da, besteak beste, soziolinguistikarekin lotutako gaiei dagokienez. Eskuotan dugun ale monografikoa izan daiteke horren adierazgarri.

Bildutako datuen azterketarako baliagarri zaizkigun hainbat kontzepturi helduko diogu hasteko, ondoren deskribatuko dugun esku-hartzea zedarritzeko. Kasu honetan unibertsitatean eta, zehazki, etorkizunean irakasle izango direnak formatzen diren fakultate batean tokituko garenez, eremu horrek bertakoen hizkuntza-praktiketan eragiteko ematen duen aukeraz eta horretarako ezinbesteko den hizkuntza-kontzientzia kritikoa garatzeko beharraz hitz eginez hasiko gara.

1. OINARRI TEORIKOAK

I Hizkuntza-praktiken eta ohitura-aldaketa horien harira, *muda* kontzeptua (Pujolar eta González 2013), hizkuntza-erabileren aldaketari loturiko hainbat fenomeno izendatzeko erabili izan da:

Per referir-nos tant als canvis com a les permanències lingüístiques que es troben en qualsevol contemplació dinàmica dels usos lingüístics, és a dir, en la comparació entre els usos lingüístics en dos àmbits o camps relacionals o en dos moments diferents. El concepte es pot projectar també a la comparació entre diferents posicionaments lingüístics dels individus, ja siguin relatiu a usos, ja ho siguin a adscripcions simbòliques d'identificació lingüística. (Pujolar et al. 2010a 45)

Lan honetan *muda* erabiliko dugu bere zentzurik zabalenean, hiztun elebidun edo eleaniztun baten hizkuntzen erabilera-ohituretan gertatzen den aldaketa esanguratsua izendatzeko, jakinik hiztun bakoitzarentzat esanahi desberdina izan dezakeela (Ortega et al. 2022).

Muda-prozesuen testuinguruei dagokienez, hainbat ikerketak agerian utzi du, besteak beste, bizitzan zehar badirela une jakin batzuk pertsona baten hizkuntza-errepertorioan aldaketak gertatzeko aukerak eskaintzen dituztenak (Pujolar eta González 2013; Pujolar et al. 2010a; Pujolar et al. 2010b). Hala, hizkuntza-mudak gertatu ohi dira gure bizi-ibilbi-

deetan aldaketak gertatzen direnean: bizi-ohiturak edo ingurukoekiko harremanak aldatu edo berregituratzean, gure hizkuntza-ohiturak ere aldatu edo berregituratu daitezke. Kontuan hartuta unibertsitate-eremua sozializazio-gune berria dela lehen mailako ikasleentzat, hots, jende berria ezagutu eta lagun talde berriak eratzeko espazioa, zilegi da pentsatzea unibertsitate-eremuko sozializazioak eragina izan dezakeela gazteen hizkuntza-errepertorioan ere.

Izan ere, zenbait ikerketak frogatu du unibertsitatea muda linguistikoen agertoki posible bat dela (Moralejo eta Ramallo 2019; Ortega et al. 2016; Puigdevall et al. 2018). Ane Ortegak eta lankideek aurretik egingako ikerketetan erakutsi dutenez, euskara etxetik kanpo ikasitakoek kasuan¹, euskararekiko hizkuntza-muda egin duten hiztunen % 21ek unibertsitatean egin du, zati batean behintzat (Ortega et al. 2016). Horrela, Rubén Moralejok eta Fernando Ramallok adierazi bezala, hainbat ikertzailek mudetarako «space of opportunity» gisa aztertu nahi izan du unibertsitatea bera (Moralejo eta Ramallo, 2019, 174).

Orriotan aurkezten dugun lana kokatzen den testuinguruan bertan, hizkuntza-mudei buruzko ikerketa diagnostikoaren emaitzek agerian utzi zuten unibertsitatea gune egokia izan daitekeela balizko hizkuntza-mudentzat, eta esku-hartzeren bat egiteko unerik egokiena adiskidetasun-sare berriak eratzen hasten diren garai hori izango litzatekeela (Bereziartua et al. 2025).

Zentzu horretan, euskal hiztun berriekin egingako ikerketek (Ortega et al. 2014, 2015, 2016; Urla et al. 2018) agerian utzi dute inguratzen dituen egoera soziolinguistikoari eta norbere hizkuntza-praktikei buruz hausnartzeko gaitasuna funtsezko elementua dela hiztunek mudak egin ahal izateko (Ortega et al. 2022).

Horregatik da interesgarria muda linguistikoen prozesua kontzientzia linguistiko kritikoren ikuspegitik behatzea (Fairclough 1992; García 2008). Ikuspegi horrek fenomeno dinamikotzat hartzen ditu hizkuntzak: arau finko bidez eraikitako sistema huts gisa baino, praktika sozial gisa ulertzen ditu errepertorio linguistikoak. Ikuspegi horretatik, hizkuntza-kontzientzia kritikoa ulertzen da pertsonen hizkuntzari eta hizkuntzak gizarte-testuinguru desberdinetan izan dezakeen erabilerari buruz modu kritikoan hausnartzeko duten gaitasun gisa.

Hizkuntza-kontzientzia kritikoa ulertzen da pertsonen hizkuntzari eta hizkuntzak gizarte-testuinguru desberdinetan izan dezakeen erabilerari buruz modu kritikoan hausnartzeko duten gaitasun gisa.

1 Izan hauek elebidun goiztiarrak ala berantiarrak (Isasi eta Erriondo 1993).

**Jakinik esku-
hartze ikerketa
honetako parte-
hartzaileak
Lehen
Hezkuntzako
irakasle izango
direla, hizkuntza-
kontzientzia
kritikoa
garatzeak
garrantzia du
irakaslegaion
hizkuntza-mudak
sustatzeko,
baita irakasle
funtziotik ere.**

Ahearn-ek dioen bezala (2001), hiztunaren agentzia edo ekiteko gaitasuna sozialki mediatua da, eta beraz, ezin da hiztun baten ekiteko gaitasuna ulertu testuinguru jakin batean ekite hori bera mugatzen duten gizarte-baldintzak ulertu gabe. Hain zuzen ere, hausnarketaren eta ekintzaren arteko harreman dialogikoa euskararanzko muden ezaugarri gisa identifikatu da unibertsitate-testuinguruan. Hala, muda-prozesua bera honela birdefinitu dute Ortegak eta bere kideek: «a process of experimenting changes in language habits, as well as of personal transformation, enhanced self-knowledge, and greater linguistic agency» (Ortega et al. 2022, 65).

Muda-prozesuak, beraz, hizkuntza-praktikak aldatzea dakar, bai eta hiztunen subjektibotasunak aldatzea ere, gizarte-ordena kritikoki zalantzan jartzearen bidez. Izan ere, muda-prozesuen baitako hausnarketak eta esperientzia emozionalak ezin dira interpretatu prozesua bera inguratzen duen testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartu gabe (Altuna eta Hernández 2019), eta alderantziz, hiztunen subjektibotasunetan gertatzen diren eraldaketak ezin dira ulertu inguruko gizarte-errealitatearen perzeptzioan eta interpretazioan gertatutako eraldaketak kontuan izan gabe.

Hizkuntza-praktikak eta testuinguru soziolinguistikoa banatu ezineko bi elementu izanda, soziolinguistikatik egindako ikerketek potentzial eraldatzailea ere izan dezakete. Luisa Martín Rojo eta bere kideen esanetan: “sociolinguistic research can be reimagined as a tool for activism and social intervention” (Martín Rojo et al. 2025, 1).

Hori guztia aintzat hartuta, azken urteetan hainbat ikerketa egiten ari gara norbanakoen hizkuntza-praktiketan eragiteko helburuarekin. Eta, besteak beste, bada xede-talde bat interes berezia pizten diguna: etorkizuneko belaunaldien erreferente linguistiko izango direnak, hau da, irakasle izateko formazioa jasotzen ari diren unibertsitateko ikasleak.

Ildo horretan, jakinik esku-hartze ikerketa honetako parte-hartzaileak Lehen Hezkuntzako irakasle izango direla, hizkuntza-kontzientzia kritikoa garatzeak garrantzia du irakaslegaion hizkuntza-mudak sustatzeko, baita irakasle funtziotik ere. Estefanía Mosquerak azpimarratzen duenez, etorkizuneko irakasleen aktibazioak garrantzi berezia du hizkuntza biziberritzeko prozesuaren barruan; izan ere, “los y las docentes constituyen los principales agentes para la legitimación de una lengua minoritaria, pues su promoción en este ámbito tiene implicaciones tanto en su producción como en su reproducción” (Mosquera 2019, 131).

Hain zuzen ere irakasleen estrategikotasun horri erantzuten diote dagoeneko hezkuntzara bideratutako graduak eskaintzen dituzten Euskal Herriko hainbat unibertsitatetan egindako ikerketek, hala nola Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean egindako ikasleen ezagutza, erabilera eta hizkuntzekiko jarrerari eta ustei buruzko ikerketak (Arratibel, Garcia eta Irastorza 2021; Garcia, Arratibel eta Irizar 2017) edo Deustuko Unibertsitatean burututako lan-keta esperimentalek (Amorrortu, Goirigolzarri eta Ortega 2018; Ortega, Goirigolzarri eta Amorrortu 2022). Ikerketa eta esku-hartzeon interesaren adierazle dira esku artean dugun ale monografikoan aurkezten diren beste bi esku-hartze ikerketak ere.

Irakasleen eragiteko gaitasunak mugak ditu, noski, eta errealitate soziolinguistikoa maila mikroan aldatu nahi denean ere ezinbestean egiten da topo egiturazko zailtasunekin. Baina, Lehen Hezkuntzako irakasle izango direnek ikasgelako -zein ikastetxeko- egoera linguistikoa arduraz irakurtzea eta bertan eragitea nahi badugu, ezinbestekoa da irakasle on formakuntza-guneetan horretarako tresnak eskaintzea. Xabi Aizpuruaren esanekin bat egiten dugu, beraz:

Argi suma daiteke irakasleek eta ikastetxeek bakarrik ezin diotela erantzun egoeraren konplexutasunetik eratorzen diren behar guztiei. Baina unibertsitateak, hezkuntzako eragileek eta gizarte antolamenduko erakundeek jositako sareak bidea eman diezaioke egitasmo bateratuak zentzuz eta indartsu abiarazteko asmoari. (Aizpuru 2015, 36)

Horrela, bada, Euskal Herriko Unibertsitatean ere ari gara ekarpenen bat egin nahian eta horren berri emango dugu ondorengo lerroetan.

2. ESKU-HARTZEA

I

2.1. Testuingurua

2.1.1. Esku-hartzearen testuinguru soziolinguistikoa

Orriotan aurkezten dugun esku-hartze ikerketa Euskal Herriko Unibertsitatean (hemendik aurrera EHU) burutu da, Gipuzkoako campuseko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean (hemendik aurrera HEFA). Fakultatea Donostiako Ibaeta auzoan dago kokatuta, eta bertan eskaintzen da Lehen Hezkuntzako gradua.

Errealitate soziolinguistikoa maila mikroan aldatu nahi denean ezinbestean egiten da topo egiturazko zailtasunekin. Baina, Lehen Hezkuntzako irakasle izango direnek ikasgelako zein ikastetxeko-egoera linguistikoa arduraz irakurtzea eta bertan eragitea nahi badugu, ezinbestekoa da irakasle on formakuntza-guneetan horretarako tresnak eskaintzea.

Ikus daiteke euskaraz egiten diren elkarrizketen proportzioa handiagoa dela campusean kalean baino. Izan ere, elkarrizketen % 42 euskaraz burutzen da HEFAn oro har, eta, zehazkiago, % 49 HEFA IIn (Donostian % 15,3koa da euskararen kale erabilera).

HEFA II eraikinean (lehengo Gipuzkoako Irakasleen Unibertsitate Eskola izandakoan) eskaintzen dira Lehen Hezkuntzako graduaz gain, Haur Hezkuntzako gradua, eta bi graduak batera egiteko ibilbidea eskaintzen duen Gradu Bikoitza, euskara izanik ikasketa ibilbide guztietako hezkuntza hizkuntza nagusia.


Hezkuntza sistemako irakasle izateko formazioa eskaintzen duten unibertsitateko graduak hainbat dira Euskal Herrian. EHU unibertsitate publikoaren baitan Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko campusetan daude graduok (Donostian, Gasteizen eta Leioan, hurrenez hurren). Nafarroako Unibertsitate publikoan (NUP) ere ikas daiteke Iruñean. Eta unibertsitate pribatuetan ere eskaintzen dute aukera, Deustuko Unibertsitatearen (DU) Bilboko nahiz Donostiako campusetan eta Mondragon Unibertsitatearen (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI), Eskoriatzako eta Bilboko campusetan. Ipar Euskal Herriko kasuan Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle izateko berariazko graduak ez dago, eta irakasle lanerako berariazko formakuntza master baten bidez jasotzen da Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatean (UPPA), Baionako eta Paueko campusen artean. Hala, orriotan aurkeztu dugun ikerketa kokatzen den UPV/EHuren Donostiako HEFAn eta hezkuntzarekin lotutako graduatan matrikulatzen diren ikasle gehienak gipuzkoarrak izan ohi dira.

Gipuzkoa da, hain zuzen, euskararen kale-erabilera altuena duen lurraldea (Soziolinguistika Klusterra 2022), jakinik Gipuzkoan ere gaztelania dela nagusi kalean, 10 elkarrizketatik 3 baino ez baitira euskaraz egiten.

Fakultatea kokatzen den hiriburuari berari buruzko datuei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu Donostian egiten diren elkarrizketen % 79,7 gaztelaniaz egiten direla, eta elkarrizketen % 15,3 baino ez direla egiten euskaraz (Soziolinguistika Klusterra 2022).

Arreta unibertsitatean bertan jarritz, euskararen erabilerak hainbat fakultatetan errealitate desberdinak dituen arren, argi ikus daiteke euskaraz egiten diren elkarrizketen proportzioa handiagoa dela campusean kalean baino. Izan ere, elkarrizketen % 42 euskaraz burutzen da HEFAn oro har (Soziolinguistika Klusterra d.g.), eta, zehazkiago, % 49 HEFA IIn, hots, fakultatearen bigarren eraikinean (Soziolinguistika Klusterra d.g.).

1. grafikoa: HEFA fakultateko hizkuntzen erabilera orokorra, 2021-2022 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra (d.g.)

Nagusiki euskaraz jarduten zuen ikasleen % 44k, euskaraz erdaraz bezainbeste egiten zuen % 16,8k eta beti erdaraz edo euskaraz oso gutxi % 11k. Eta unibertsitateko hizkuntza-erabilerari buruz galdetuta, gehienek erantzun zuten euskara gehiago erabiltzen zutela fakultatean, familian eta ohiko lagunekin baino.

Hala ere, HEFA IIko euskararen erabilerari buruzko datuen bilakaera behatuz gero ikus dezakegu euskarak behera egin duela azken hiru urteetan, 6,9 puntuz (Soziolinguistika Klusterra d.g.).

2.1.2. Ikasleen profil soziolinguistikoa

Euskal Herriko Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketez gain, Lehen Hezkuntzako ikasleen profil soziolinguistikoen azterketa zehatzagoa ere egin izan da (Artetxe et al. 2024). 2022-2023 ikasturtean egindako azterlanean, Lehen Hezkuntzako graduiko ikasleen hizkuntzen erabilera aztertu zen, besteak beste. Hala, nagusiki euskaraz jarduten zuen ikasleen % 44k (beti euskaraz % 18,6k eta euskaraz erdaraz baino gehiago % 25,4k), euskaraz erdaraz bezainbeste egiten zuen % 16,8k eta beti erdaraz edo euskaraz oso gutxi % 11k. Eta unibertsitateko hizkuntza-erabilerari buruz galdetuta, gehienek erantzun zuten euskara gehiago erabiltzen zutela fakultatean, familian eta ohiko lagunekin baino.

Haien egunerokotasunean egiten zituzten hizkuntza-hautuei buruz galdetuta, gazteen diskurtsoetan ez zen egiturazko aldagaien eraginik ageri, eta aldiz, hizkuntza-portaeren naturalizazioa zen nagusi (Altuna eta Hernández 2021): egindako hizkuntza-hautuak unean uneko solaskidearen arabera, *ateratzen zitzaienaren* arabera egiten zituztela adierazi zuten, hizkuntza bat ala beste erabiltzea hautu indibidual eta aske gisa ulertuz, gehienetan (Artetxe eta Bereziartua 2023).

**Murgiltze
Asteak bi
helburu nagusiri
erantzun
nahi izan die:
helburuetako
bat irakasle
gisa izango
duten ardura
linguistikoaz
jabetzea izan
da, eta bestea
unibertsitate-
ibilbidean
euskararanzko
mudak
gertatzeko
baldintzak
sortzea.**

Jakinik unibertsitatera sarrera euskararako mudak gauzatzeko gune eta une aproposa izan daitekeela, jakinik ikasleek haien eta ingurukoen hizkuntza-praktikak ulertzeko egiturazko aldagaien kontzientzia urria dutela, eta jakinik hizkuntza-errealitateaz hausnartzeko gaitasunak hizkuntza-mudantzetan eragina izan dezakeela, ikasleen hizkuntza-kontzientzia kritikoa sustatzeko sortu ziren, besteak beste, IGOA proiektua eta Murgiltze Astea.

2.1.3. IGOA eta Murgiltze astea

Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari diren irakaslegaiak eragin esanguratsua izango dute datozen urteetako Lehen Hezkuntzako eskoletako hizkuntza-errealitatean. Hizkuntza zuzentasunean ikasleen erreferente izateaz gain, hizkuntzaren erabileran eta kontzientzia kritikoa garatzeko eragiletzan ere eragina izateko aukera dute.

Hortaraxe dator, hain zuzen, IGOA proiektua (IrakasleGaien Ohartze eta Ahalduentze Soziolinguistikoa), etorkizuneko hezitzaileengan hizkuntza-kontzientzia kritikoa sustatzera. IGOAren baitan egin zen, lehendabizi, fakultateko graduetakoa irteera-profilari buruzko gogoe-ta bat, eta bertan finkatu ziren ohartze soziolinguistikoari dagokionez ikasleek lau urteko ibilbidean erdietsi beharreko hainbat ezagutza eta gaitasun. IGOAren asmoa fakultatean eskaintzen diren graduen baitan ibilbide bat diseinatzea da, hainbat ikasgaiaren bidez modu koordinatua egindako esku-hartzeen bidez, ikasleek ezagutza eta gaitasun horiek lor ditzaten, hain zuzen.

Aurrez egindako ikerketetan lagun-sare berriak egiteko unea garrantzitsutzat jo denez (Bereziartua et al. 2025), ibilbide horren lehenengo urrats gisa “Murgiltze Astea” izeneko esku-hartzea diseinatu da, modu esperimentalean lehen aldiz Lehen Hezkuntzako graduaren lehen urteko lehen astean inplementatu dena 2024-2025 ikasturtean.

Bost egunetan zehar modu trinkoan egindako Murgiltze Asteak bi helburu nagusiri erantzun nahi izan die: helburuetako bat irakasle gisa izango duten ardura linguistikoaz jabetzea izan da, eta bestea unibertsitate-ibilbidean euskararanzko mudak gertatzeko baldintzak sortzea. Hala, hezkuntza eragileek hizkuntza-praktiketan duten eragina ulertzeko, alde batetik, eta ikastaldea hizkuntza-ohituren aldaketarako gune seguru bihurtzeko, bestetik, hizkuntza-kontzientzia kritikoa sustatu nahi izan da. Horretarako, hausnarketa bultzatu da, besteak beste, ikasleen hizkuntza-ibilbideei, hizkuntza-praktikei eta hizkuntza-ideologiei

buruz, eta haien inguruko egoera eta bilakabide soziolinguistikoari buruz.

2.2. Esku-hartzearen deskribapena

2024-2025 ikasturtean hala jakinarazi zitzairen Lehen Hezkuntzako lehen mailako ikasleei graduaren aurkezpenean (klase-ordutegiarekin hasi aurretik egiten den harrera-ekitaldi ofizialaren baitan): lehen lauhilekoaren lehen astean (2024ko irailaren 9tik 13ra), irakasgai arruntei zegozkien saioak izan ordez, ohartze soziolinguistikoa ardatz izango zuen astebeteko dinamika batean hartuko zuten parte. Horretarako, ikasleak sei taldetan banatuko ziren (irakasgaietarako egokitutako hiru talde praktikoetako bakoitza bitan banatuz), bakoitza dinamizatzailer baten gidaritzapean, egunean 5 orduz.

Esku-hartzearen helburu nagusiekiko joshuran, Murgiltze Asteke egun bakoitzak helburu zehatz bat izan du:

- **1. eguna:** Gure aurreiritzi linguistikoez jabetzea eta profil desberdinetako hiztunek elkarrekiko enpatia garatzea, talde giroa sortuz.
- **2. eguna:** Gure ideologia linguistikoetan sakontzea, hizkuntzei eta hiztunei buruz pentsatzen dugunak zein oinarri dituen aztertzea eta hiztunen legimititatea neurtzeko ditugun tresnak zalantzan jartzea.
- **3. eguna:** Hizkuntzek gure gizartean betetzen dituzten edo ez dituzten funtzioez jabetzea, hizkuntza bat ala beste jakiteak ala ez jakiteak eskaintzen dituen aukerez eta mugez jabetzea eta euskarak gure gizartean hezkuntza sistematik kanpo duen lekuaz ohartzea.
- **4. eguna:** Ikasleak euskarak eta euskaldunek hezkuntza eremuan izandako bilakaera historikora gerturatu eta egungo errealitatea ezagutzea, haien etorkizuneko lanbidearen erronka linguistikoaz jabetuz.
- **5. eguna:** Murgiltze astearen balorazioa egitea, era sortzaile eta umoretsuan, eta talde guztiek elkar ezagutzea.

Helburua:
***Ikasleak euskarak
eta euskaldunek
hezkuntza
eremuan izandako
bilakaera
historikora
gerturatu
eta egungo
errealitatea
ezagutzea, haien
etorkizuneko
lanbidearen
erronka
linguistikoaz
jabetuz.***

**Esku-hartze
ikerketa
honetan EHUKo
Donostiako
campuseko
Lehen
Hezkuntzako
graduako lehen
mailako 120
ikaslek hartu
dute parte.
Horien arean,
% 44,1ek
euskara du lehen
hizkuntza,
% 15,6k
gaztelania eta
% 35,2k euskara
eta gaztelania
(gainerako
% 4,6k beste
hizkuntza
batzuk ere lehen
hizkuntzatzat
dauzka).**

Egun bakoitzeko helburu zehatza lortzeko berariaz sortutako hainbat jarduera diseinatu eta burutu dira. Dokumentu honen eranskinean ikus daitezke diseinatutako jardueren buruzko xehetasunak.

2.3. Ikerketarako datuen bilketa

Esku-hartze honen baliagarritasuna hein batean neurtu ahal izateko, eta ikasleen hizkuntza-erabileraren zein hizkuntzei buruzko usteen gaineko azterketak egin ahal izateko hainbat datu bildu ditugu Murgiltze Astearen zehar.

Lehenik eta behin, asteari ekin aurretik eta astea bukatu bezain laster ikasleek galdetegi bana bete zuten. Jakin badakigun arren Murgiltze Astea bezalako ekimen baten inpaktua ezin dela sakonki neurtu galdetegi bidez, jasotako zenbait emaitza aurkeztuko ditugu artikuluko lehen zatian, us-tez eta balorazio xume bat egiteko baliagarriak zaizkigun zenbait datu eskuratu ahal izan ditugula. Galdetegiko erantzunen azterketa xehetagoa ikasturte honen baitan egingo dugu.

Galdetegiez gain, euskarazko eta gaztelaniazko hiztun idealak irudikatzen zituzten marrazkiak, Metaplanak eta horiei buruzko talde hausnar-keten grabazioak ere jaso ditugu, eta horien azterketa irakurgai izango da laster (Artetxe eta Bereziartua, in press).

2.4. Parte-hartzaileak

Esku-hartze ikerketa honetan EHUKo Donostiako campuseko Lehen Hezkuntzako graduako lehen mailako 120 ikaslek hartu dute parte². Ikasle gehienak emakumeak izan dira (% 63,7), eta batez besteko adina 18,5 urtekoa izan da. Parte-hartzaileen jatorriari dagokionez, gehienak, esan bezala, Gipuzkoakoak dira (% 89,2). Lehen hizkuntzari dagokio-nez, aldiz, parte-hartzaileen % 44,1ek euskara du lehen hizkuntza, % 15,6k gaztelania eta % 35,2k euskara eta gaztelania (gainerako % 4,6k beste hizkuntza batzuk ere lehen hizkuntzatzat dauzka). Orain arteko ikasketa ibilbideari dagokionez, parte-hartzaileen % 93,1ek euskarazko murgiltze-ereduan (D eredua deiturikoan) ikasi du.


2 Matrikulatutakoen zerrendan 134 ikasle bazeuden ere, asteko jardueretara 120 ikasle etorri ziren. Horietatik 106 ikaslek bete zuten inkesta.

3. EMAITZETARA LEHEN HURBILPENA

Gisa honetako esku-hartzeen eragina neurtzea ez da erraza, esan bezala, neurtzeko aukeretatik alde egiten diguten aldagai askok eta askotarikoek parte hartzen dutelako eta, gainera, denboran irauten duen eragina lortu nahi delako. Edonola ere, epe luzekoak ez izan arren, esku-hartzeak iraun zuen astearen hasieratik bukaerara zenbait aldaketa azaleratu dira galdetegien emaitzetan eta horiek aurkeztuko ditugu ondorengo lerroetan.

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da esku-hartzea gauzatutako testuingurua: unibertsitateko ikasketak hasi berri dituzten ikasleak dira, arrotza zaien testuinguru batean sartu berri dira, eta beren helburu behinena ikaskideekin harremanak sortzea eta taldera egokitzea da. Zentzu horretan, bermatuta gelditu da esku-hartzearen egokitasuna, 2 grafikoak erakusten duen moduan:


2. grafikoa: Murgiltze astean erabilitako jarduerak zenbait aspektu lantzeko izan duten baliagarritasun-maila (%)



Esku-hartzearen amaieran betearazitako galdetegian ikasleek erantzun dutenaren arabera, ekimenari baliagarritasun handia edo oso handia ikusi diote bai kideak ezagutzeko, bai talde giroa sortzeko eta bai unibertsitatean sarrera goxo bat izateko. Parte-hartzaileen arteko % 90etik gora izan dira hala erantzun dutenak.

Hori guztia garrantzitsua da, jakinda testuinguru berri honetan lagun konfigurazio berriak egingo dituztela eta sare berri horien sorreran zedarrituko dituztela beren artean komunikatzeko hizkuntza-hautuak. Ikusi dugunez, gure ikerketako parte-hartzaileak jabetzen dira hizkuntza bat edo beste hitz egiteak eragina daukala lagun-taldeak osatzeko garaian (3 grafikoa).


3. grafikoa: Lagun-taldeak osatzerako garaian hizkuntza bat ala beste hitz egiteak daukan eragina (%)



Grafikoan ikusi dezakegunez, uste horrek indarra hartu du esku-hartzearen hasieratik bukaerara, eragin hori handia edo oso handia dela uste zutenak % 59,7 izatetik % 70,4 izatera igaro baitira.

Gainera, iruditzen zaie unibertsitate garaia aukera ona dela beren burua aktibatu eta euskara gehiago erabili ahal izateko. Eta pentsakizun horrek ere gora egin du esku-hartzean zehar, baieztapen horrekiko adostasun handia edo oso handia daukatela erantzun dutenen kopuruak % 80,3tik % 90,4 egin baitu gora (4 grafikoa).


4. grafikoa: Ikasleen erantzunak unibertsitateko garaia eragotzaren egokitasunaz beren buruak aktibatu eta euskara gehiago erabili ahal izateko (%)



Ikerketako parte-hartzaileek euskara erabiltzeko daukaten nahiari dagokionez, ikusten da desioa badaukatela. 5 grafikoa erakusten duenez, esku-hartzearen hasieratik bukaerara ez dute datuek bilakaera handirik izan, baina bai batean eta bai bestean nahia handia edo oso handia dela

erantzun dute parte-hartzaileen arteko % 90etik gorak (% 91,1ek hasierako galdetegian eta % 94,2k bukaerakoan).

5. grafikoa: Unibertsitatean graduako lagun eta ikaskideekin euskara erabiltzeko maiztasuna zenbatekoa izatea nahiko luketen (%)



Esku-hartzearen helburuetako bat parte-hartzaileek beren hizkuntza-praktiken eta soziolinguistikarekin lotutako zenbait alderdiren gaineko hausnarketa egitea zen. Zentzu horretan, interbentzioari baliagarri iritzi diotela erantzun dute amaierako galdetegian (1 taula).


1 taula: Murgiltze astean erabilitako jarduerak soziolinguistikarekin lotutako hainbat aspektu lantzeko izan duten baliagarritasun-maila (%)

	Oso txikia	Txikia	Ertaina	Handia	Oso handia
Nire hizkuntza ibilbideari buruz hausnartzeko.	1,0	5,7	21,0	36,2	36,2
Besteen hizkuntza ibilbideei buruz hausnartzeko.	1,9	8,6	25,7	38,1	25,7
Hizkuntzei eta hiltunei buruz ditudan usteak, jarrerak eta aurreiritziak sakonago ulertzeko.	1,0	4,8	21,0	45,7	27,6
Euskararekin ditudan erabilera-ohituren inguruko hausnarketarako.	1,0	4,8	19,0	39,0	36,2
Euskararen egoera soziolinguistikoiari buruz hausnartzeko.	1,9	2,9	17,1	41,9	36,2
Nire hizkuntza-praktikei buruz kritikoki pentsatzeko.	1,9	3,8	21,0	41,0	32,4
Nire inguruko eta gizarteko hizkuntza-praktikei buruz kritikoki pentsatzeko.	1,9	4,8	21,9	40,0	31,4

Taulan behatu dezakegunez, parte-hartzaileen arteko bi herenetik gora dira esku-hartzearen baliagarritasuna handia edo oso handia izan dela uste izan dutenak, bereziki honako kasuetarako: euskararen egoera soziolinguistikoari buruz hausnartzeko (% 78,1), euskarazko erabilera-ohituren inguruko hausnarketarako (% 75,2), beren hizkuntza-praktikei buruz kritikoki pentsatzeko (% 73,4) eta hizkuntzei zein hiztunei buruz dauzkaten usteak, jarrerak eta aurreiritziak sakonago ulertzeko (% 73,3).

Emaitzen atalari amaiera emateko, parte-hartzaileen profilean eta horrek suposatzen duenean jarri nahi dugu begia. Lehen Hezkuntzako gradua ikasten hasi diren ikasleak dira, luze baino lehen irakasle izango direnak. Hori dela eta, garrantzitsua iruditu zaigu erreferente izango diren heinean, izango duten erantzukizunari buruz daukaten iritzia eza-gutzea (6 grafikoa).

6. grafikoa: Irakasle-funtzioari begira, irakaslearen hizkuntza-erabilerek eta -jarrerak ikasleengan erreferente linguistiko gisa izateko duten garrantzi-mailari buruz jasotako erantzunak (%)



6 grafikoak erakusten duenez, erantzukizunaren kontzientzia bazeukaten esku-hartzea egin aurretik ere, baina areagotu egin da esku-hartzean zehar. Erreferente linguistiko gisa, irakasleen hizkuntza-erabilerak eta jarrerak garrantzi handikoak edo oso handikoak direla iruditzen zaiela erantzun du parte-hartzaileen arteko % 88,15ek esku-hartzearen hasieran eta % 95,19k bukaeran.

Emaitzen sintesi gisa, garbi gelditu da Murgiltze Astea unibertsitatean hasteko modu atsegin bat izan dela ikasleentzat. Hizkuntza kon-

tuei gagozkiola, euskaraz gehiago egitea ahalbidetuko dien gune gisa identifikatzen dute unibertsitatea eta euskaraz gehiago egiteko desira ere erakutsi dute parte-hartzaileek. Horrez gain, hizkuntza-kontzientzia kritikoa garatzera bidean urratsen bat emateko lagungarri izan dela dirudi. Eta bilakatuko diren irakasle gisa daukaten erantzukizunaren kontzientzia bermatzeko ere baliagarria izan dela ikusi da.

4. ONDORIOAK

I Emaitzetan ikusi ahal izan dugun bezala, gure ikasleek badaukate desira euskaraz gehiago egiteko, baina hizkuntza gutxituetako testuinguruetan jakitun gara desira izate hutsa ez dela nahikoa ekintzara heltzeko. Sarri, eta askotan jabetu ere egin gabe, egiturazko hainbat aldagaik jotzen dute horren kontra, norbere agentzia mugatuz. Kontrako eragin horiek gainditzeko berebiziko garrantzia dauka hizkuntza-kontzientzia kritikoa garatuta izateak, euskaraz gehiago egiteko desira horrek forma hartu ahal izan dezan. Zentzu horretan egin nahi izan du bere ekarpena orriotan aurkeztu dugun ekimenak.

Parte-hartzaileek orokorrean ongi baloratu dute esku-hartzea bera. Berezi baliagarria izan da unibertsitatera sarrera goxo bat egiteko eta hori asko eskertu dute ikasleek. Hala ere, esku-hartze hau benetan eraginkorra izateko, ezinbestekoa da jarraipena izan dezan. Hau da, abiapuntu honek gradu osoan zehar zabalduko den diseinua eskatzen du, bestela, hemen lortu uste den eragin hori egiturazko kontrako aldagaie-tan urardotzeko arriskua dago. Baina horrelako diseinu batek gradu osoan zeharreko irakasleen kontzientziazioa eta inplikazioa eskatzen ditu eta horretarako beharrezkoak dira irakasleen adostasuna, lanketa koordinatua eta erakundearen babesa. Gure unibertsitatean bide hori egin nahian dihardu IGOA ekimenak.

Murgiltze Asteari ikusi diogun beste ahulgune bat, esku-hartzea amaitzean antolatzaileok egindako balorazioan azaleratu da: ikasleekin jarduerak burutu eta beraien ekoizpenak ikustean, iruditu zaigu ikasleen hausnarketak ez direla guk espero bezain sakonak izatera heldu. Horren atzean egon daitezkeen arrazoiak bila hasita, konturatu gara ikasle gehienei urruti gelditzen zitzaizkiela landutako edukiak eta, oro har, hizkuntza-praktiken inguruko analisirako baliabiderik gabe heltzen direla unibertsitatera. Kezka hori ez da berria eta aldizkari honen “Kon-

Ikasleek badaukate desira euskaraz gehiago egiteko, baina hizkuntza gutxituetako testuinguruetan jakitun gara desira izate hutsa ez dela nahikoa ekintzara heltzeko. Egiturazko hainbat aldagaik jotzen dute horren kontra, norbere agentzia mugatuz. Kontrako eragin horiek gainditzeko berebiziko garrantzia dauka hizkuntza-kontzientzia kritikoa garatuta izateak, euskaraz gehiago egiteko desira horrek forma hartu ahal izan dezan.

**Hizkuntza
gutxitu baten
hiztun guztiek
kontzientzia
linguistiko
kritikoa
edukitzea
desiragarri bada
ere, belaunaldi
berrien irakasle
izango direnen
kasuan desiraga-
rri ezezik
beharrezko ere
badela esatera
ausartzen gara.
Etorkizuneko
haurren
erreferente
izango diren
profesionalen
gaitzea
ezinbestekoa
da, izango duen
eragin-aukera
biderkatzailea
aintzat hartuta.**

tzientzia Soziolinguistikoa Hezkuntzan” monografikoa horri begira egiten ari diren ekimenen erakusle da. Bestalde, gogoan izan behar dugu ikasleak testuinguru berri batean murgildu zirela eta konfiantzazko talde-giroa sortzen saiatuagatik, konfiantza maila altuagoa eskatzen zutela zenbait gairi buruzko hausnarketek, sakonak izatekotan. Edonola ere, ahulguneak ahulgune, neurri batean, bederen, lagungarri izan da esku-hartzea kontzientzia linguistiko kritikoa lantzeko.

Edozein kasutan, unibertsitateko testuinguruan gerta daitezkeen hizkuntza-mudantzei begira, ekimen aproposa iruditzen zaigu. Unibertsitatea gune abegikortzat hartu dute ikasleek eta hori garrantzitsua da etikoki ezezik estrategikoki ere (hizkuntza-mudak egiteko martxan jarri daitezkeen ekimenei begira). Ikasleentzat hain lehentasunezkoa den lagun-sareak modu goxoan osatzen lagundu du ekimenak eta horrek bat egiten du IGOA ekimenaren helburuetako bat den unibertsitateko eremua ikastaldearentzat hizkuntza-gaitasunak eta erabilera ohiturak garatzeko gune seguru izatearekin. Ingurune seguru bat eta kontzientzia linguistiko kritikoa oinarri dira hizkuntza-mudak gerta daitezen.

Esku-hartzearen alderdi tekniko-logistikoei begira jarrita, orriotan aurkeztu duguna emaitzetara egin dugun lehen hurbilpena da, baina azterketa sakonagoak egin behar dira emaitza horiek noraino diren esanguratsu jakiteko. Luze baino lehen egin asmo dugun lana da hori. Bestalde, honelako esku-hartze batek eskatzen duen logistika lana handia da. Esperientzia pilotu gisa gauzatu dugun hau boluntario gisa eta ikuspegi militante batetik elkartutako irakasle talde bati esker eta fakultateko dekanotzaren zein Mikel Laboa katedraren babesarekin egin ahal izan da, baina benetan eraginkorra izan dadin komenigarria litzateke graduen antolaketan txertatzea, inplikaturako lituzkeen irakasleen eta erakundearen oniritziarekin. Babes horrekin, esperientzia pilotu gisa egin dugun hau beste fakultate batzuetara hedatzeko aukera egongo litzateke, diseinua finduta, material gehiago sortuta eta tokian tokiko beharretara egokituta.

Amaitzeko, esku-hartze honetako parte-hartzaileen profilaren garrantzia jarri nahi dugu berriro ere mahai gainean. Hizkuntza gutxitu baten hiztun guztiek kontzientzia linguistiko kritikoa edukitzea desiragarri bada ere, belaunaldi berrien irakasle izango direnen kasuan desiragarri ezezik beharrezko ere badela esatera ausartzen gara. Etorkizuneko haurren erreferente izango diren profesionalen gaitzea ezinbestekoa da, izango duen eragin-aukera biderkatzailea aintzat hartuta.

5. ESKERTZAK

I

Gure eskerrik beroenak Murgiltze Astea dinamizatzailer lanetan aritu zirenei (Izaro Arroita, Mikel Gartziarena, Berta Etxeberria, Itziar Elortza eta Rosa Ramos), IGOAko gainerako kideei (Amaia Elizalde, Olaia Miranda eta Onintza Odriozola), IGOA proiektua finantzatu duen Mikel Laboa Katedrari (Amaia Elizalde), Beñat Amenabar buru izan duen Dekanotza taldeari eta ekimena martxan jartzeko erraztasunak eman zizkiguten lankide guztiei. ●

ERREFERENTZIAK

- Ahearn, Laura M. 2001. «Language and Agency». *Annual Review of Anthropology* 30: 109-137.
- Aizpurua, Xabi. 2015. «Euskararekiko Pertzepzio Soziolinguistikoa nola landu udalerrri euskaldunetako ikasleekin: hizkuntza ekologia eta arnaguneen ideia». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 97, 4 zkia.: 11-37.
- Altuna, Olatz, eta Jone Miren Hernández. 2021. «Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 120, 3 zkia.: 29-45.
- Altuna, Jaime, eta Jone Miren Hernández. 2019. «Retos metodológicos en el estudio de las prácticas lingüísticas de jóvenes y adolescentes». In *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Fernando Ramallo, Estibaliz Amorrortu, eta Maite Puigdevall, 65-88. Madril-Frankfurt: Iberoamericana-Vervuert.
- Amorrortu, Estibaliz, Jone Goirigolzarri-Garaizar, eta Ane Ortega. 2018. «El proceso de muda en jóvenes universitarios del Gran Bilbao: una primera aproximación». In *Actas do XIII Congreso Internacional de Lingüística Xeral*. Marta Díaz, Gael Vaamonde, Ana Varela, M^a Carmen Cabeza, José M. García-Miguel eta Fernando Ramallo, 63-70. Vigo: Universidade de Vigo.
- Arratibel, Nekane, Letizia Garcia, eta Joxpi Irastortza. 2021. «Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo ikasle hasiberrien hizkuntza-hautuak eta arrazoiak». *UZTARO* 119: 143-165. doi: 10.26876/uztaro.119.2021.8
- Artetxe, Miren, eta Garbiñe Bereziartua. 2023. *Gaztelania eta frantsesarekiko desoreka euskal gazteen eguneroko hizkerarako adierazkortasunean: Faktore horien eragina Donostia eta Baionako unibertsitate-ikasleen hizkuntza-hautuan*. Euskaltzaindia-Mintzola [txosten argitaragabea].

- Artetxe, Miren, eta Garbiñe Bereziartua. Prentsan. «¿Qué vemos cuando hablamos de hablantes ideales? Un estudio experimental para el análisis de las ideologías lingüísticas de estudiantes universitarios del País Vasco». *Treballs de Sociolingüística Catalana*.
- Artetxe, Miren, Garbiñe Bereziartua, eta Naroa Burres. 2024. «Ahozko hizkera informalerako gaitasuna eta harreman-sare informaletako hizkuntza-erabilera: azterketa kuantitatibo bat unibertsitateko gazteen testuinguruan». *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 69, 1 zkia.: 49-78. doi: 10.59866/eia.v1i69.274
- Bereziartua, Garbiñe, Miren Artetxe, eta Naroa Burres. 2025. «Performing a linguistic muda in favour of Basque at University: choices, hopes and reality». *Multilingua Journal of Cross-Cultural and Interlanguage Communication*. <https://doi.org/10.1515/multi-2025-0015>
- Fairclough, Norman. 1992. *Critical language awareness*. London: Routledge.
- García, Ofelia. 2008. «Multilingual language awareness and teacher education». In *Encyclopedia of Language and Education*. Jasone Cenoz eta Nancy Hornberger, 385-400. New York: Springer.
- García, Leticia, Nekane Arratibel, eta Asier Irizar. 2017. «Euskararen eza-gutza eta erabilera binomioa: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko 1. mailako ikasleak ulertzeko ga-koak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 105, 4 zkia.: 163-199.
- Isasi, Xabier eta Lore Erriondo. 1993. «Elebitasuna: arazoa eta aztergaia». In *Hizkuntza, hezkuntza eta elebitasuna*. Lore Erriondo, Xabier Isasi eta Fito Rodríguez, 45-62. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Martín Rojo, Luisa, Joan Pujolar, eta Estibaliz Amorrortu. 2025. «Negotiating sociolinguistic justice: turning spaces of inequality into spaces of conscientization». *International Journal of the Sociology of Language* 2025, 291 zkia.: 1-26. doi: 10.1515/ijsl-2022-0114
- Moralejo, Rubén, eta Fernando Ramallo. 2019. «Las condiciones del (pre) neofalantismo y el proceso de conversión lingüística en Galicia». In *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Fernando Ramallo, Estibaliz Amorrortu, eta Maite Puigdevall, 165-183. Madril-Frankfurt: Iberoamericana-Vervuert.
- Mosquera, Estefanía. 2019. «Travestismo lingüístico: una experiencia sociológica y didáctica sobre ideologías, obstáculos y persistencia en neofalantes de gallego». In *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Fernando Ramallo, Estibaliz Amorrortu, eta Maite Puigdevall, 131-146. Madril-Frankfurt: Iberoamericana-Vervuert.
- Ortega, Ane, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri, Jacqueline Urla, eta Belen Uranga. 2014. «New Basque speakers: linguistic identity and legitimacy». *Digithum* 16: 47-58.

- Ortega, Ane, Jacqueline Urla, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri, eta Belen Uranga. 2015. «Linguistic identity among new speakers of Basque». *International Journal of the Sociology of language* 231: 85-105. doi: 10.1515/ijsl-2014-0033
- Ortega, Ane, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri, eta Jacqueline Urla. 2016. *Los nuevos hablantes de euskera: experiencias, actitudes e identidad*. Deusto: Universidad de Deusto.
- Ortega, Ane, Jone Goirigolzarri, eta Estibaliz Amorrortu. 2022. «Participatory action research to promote linguistic mudas among new speakers of Basque: design and benefits». *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 43, 1 zkia.: 55-67. doi: 10.1080/01434632.2021.1968877
- Puigdevall, Maite, John Walsh, Estibaliz Amorrortu, eta Ane Ortega. 2018. «'I'll be one of them': linguistic mudas and new speakers in three minority language contexts». *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 39, 5 zkia.: 445-457. doi: 10.1080/01434632.2018.1429453
- Pujolar, Joan, eta Isaac González. 2013. «Linguistic <mudes> and the de-ethnicization of language choice in Catalonia». *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism* 16, 2 zkia.: 138-152. doi: 10.1080/13670050.2012.720664
- Pujolar, Joan, Isaac González, Anna Font, eta Roger Martínez. 2010a. *Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- Pujolar, Joan, Isaac González, eta Roger Martínez. 2010b. «Les mudes lingüístiques dels joves catalans». *Llengua i ús: Revista tècnica de política lingüística* 48: 65-75.
- Soziolingüistika Klusterra. 2022. *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021*. <https://soziolingüistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/>
- Soziolingüistika Klusterra. d.g. UPV/EHUko fakultateetako esparru ez-formaletan hizkuntzen erabilera 2018-2022. *Gipuzkoako Campusa. Ikerketaren emaitza nagusiak*. Soziolingüistika Klusterra [txosten argitaragabea].
- Urla, Jacqueline, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, eta Jone Goirigolzarri. 2018. «Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value». In *Standardizing Minority Languages. Competing Ideologies of Authority and Authenticity in the Global Periphery*. Pia Lane, James Costa, eta Haley De Korne, 22-46. New York: Routledge.

ERANSKINA

Murgiltze asteko egunkako helburuen eta jardueren antolaketa.

Eguna	Helburua	Jarduerak
1	Gure aurreiritzi linguistikoez jabetzea eta profil desberdinetako hiztunek elkarrekiko enpatia garatzea, talde giroa sortuz.	• Ezer baino lehen hasierako galdetegia bete zuten parte-hartzaileek. • Ongi etorria eman eta berehala ezagutza jolasak egin genituen, 5-6 pertsonako talde txikitan. • "Eskanerra" deituriko jardueraren lehen urratsean, jende berria ezagutzerakoan ezagutzen ez dugun horri buruz ahal bezainbat informazio erazteko <i>eskanerra</i> irudikatu zuten. Zein datu prozesatzen ditugu (janzkera, ilea, mugitzeko modua...)? Ze informazio ematen digu bakoitzak? (jatorria, gustu musikalak, joera politikoa...). Bigarren urratsean, <i>eskaner linguistikoa</i> irudikatu genuen: ze informazio erauzi dezakegu pertsona baten hitz egiteko modutik, darabilen hizkuntzatik edo hizkeratik? • Ondoren ezagutza jolasetarako baliatutako taldeetan elkarri haien hizkuntza biografiak azaldu zizkieten ikasleek, marrazki baten bidez. Ezagutza jolasean elkarri pasatako <i>eskanerrak</i> emandako informazioa kontrastatu ahal izan zuten horrela, maiz errealitatea gure aurreiritzietatik irudikatua baino konplexuagoa dela ondorioztatuz. • Azkenik, binakako eta taldekako konfiantza jolasak eginez eman zitzaion amaiera egunari.
2	Hizkuntzei eta hiztunei buruz pentsatzen dugunak zein oinarri dituen aztertea eta hiztunen legitimitatea neurtzeko ditugun tresnak zalanztan jartzea.	• Hasteko, munduko hizkuntza aniztasunaz jardun genuen taldekako quizz formatuko jarduera batean. • Bigarren jardueran, hizkuntzen eta dialektoen arteko mugez aritu ginen. Avatar baten gidaritzapean eta Mentimeter aplikazioa erabiliz ikasleek taldeka ontzat edo txartzat eman behar izan zituzten hizkuntza bat eta dialekto baten arteko desberdintasunakzehatzuko lituzketen aldagaiak (hiztun kopurua, hedadura geografikoa, elkar-ulergarritasuna, gramatika propio bat izatea...). Azkenerako avatarak adierazten zuen aldagai batek ere ez zuela balio hizkuntzak eta dialektoak bereizteko, eta ez dagoela modurik objektiboki esateko zein aldaera den hizkuntza bat eta zein ez den. • Euskarazko eta gaztelaniazko hiztun on bat zer zen definitzen saiatu ginen "Hiztun idealen bila" deituriko azken jardueran. Ikasleek euskarazko <i>hiztun on</i> baten irudia marraztu behar izan zuten, eta ondoren ezaugarritu, "metaplan" izeneko teknika erabilia (parte-hartzaile bakoitzak bi post-it erabili zituen ezaugarriak idazteko eta gero, taldetxoka, ezaugarriok kategorizatu zituzten). Gauza bera egin zuten gaztelaniazko <i>hiztun onarekin</i>. Ondoren, talde txikitan behatu zituzten irudiak, post-itak aztertu zituzten eta ateratako ondorioak partekatu zituzten talde handian. Hausnarketan behatu ahal izan genituen euskarazko eta gaztelaniazko hiztun onen profilen ezberdintasunak, eta ezberdintasun horien jatorriaz hausnartu genuen.

3	Hizkuntzek gure gizartean betetzen dituzten edo ez dituzten funtzioez jabetzea, hizkuntza bat ala beste jakiteak ala ez jakiteak eskaintzen dituen aukerez eta mugez jabetzea, euskarak gure gizartean hezkuntza sistematik kanpo duen lekuaz ohartzea.	• Egunari hasiera emateko jolas bat egin genuen jokorako kartekin, baina aurrez guk propio trukatu genuen jolasa, jolasak aurrera egin ahala ikasleak frustra zitezten. Horren bidez honako hausnarketa bultzatu genuen: joko-arauek jokoaren emaitza baldintzatzen dutela, izan kartekin edo izan bizitzan. • Jarraian, giza-kate gisako jarduera egin genuen. Ikasleek giza-kate bat osatu eta guk esandako adierazpenen arabera ikasle bakoitzak pauso bat aurreratu behar zuen edo zegoen tokian gelditu. Puntu batean katea hautsi egin zen eta horrekin ondorioztatu genuen garrantzitsua dela hiztun profil desberdinetako ikasleen subjektibitatei leku egitea eta euskara egituraz dela zapuztua. • Amaitzeko, unibertsitatea kokatuta dagoen auzoko hizkuntza paisaiaren azterketa egin zuten, talde txikika eta gure jarraibideekin. Elkarri aztertutakoan berri emanez eta hausnarketa orokor bat eginez amaitu genuen eguna.
4	Ikasleak euskarak eta euskaldunek hezkuntza eremuan izandako bilakaera historikora gerturatu eta egungo errealitatea ezagutzea, haien etorkizuneko lanbidearen erronka linguistikoaz jabetuz.	• "Hizkuntza zuhaitzak" izeneko jarduerarekin eman genien hasiera laugarren egunari. Ikasle bakoitzak bere arbola genealogikoa eginda ekarri zuen, eta kide bakoitzaren eskolako nahiz etxeko hizkuntzak zein izan ziren zehaztuta. Elkarren arbolak aztertu eta alderatu zituzten, ikusteko belaunaldiz belaunaldi nola helarazi diren hizkuntzak edo zer haustura egon diren transmisio horretan eta gertatutakoa zerk bultzatu duen. • Bigarren jarduera gisa "Euskararen kontrako neurriak" izeneko bideoa ikusi eta galdera batzuk erantzun zituzten ikasleek. Testigantzen bidez, testuinguru historikoak eta euskararen kontrako errepresioak hiztunen emozioetan eta bizipenetan duten ondorioez jabetzea nahi izan genuen, euskararen kontrako iraganeko neurriak euskararen egungo egoeraren arrazoi direla konturatzeko. • Jarraian, "Euskarazko hezkuntzari bultzada" izeneko jardueran, euskarazko hezkuntzaren hasiera nolakoa izan zen erakusten duen bideo bat ikusi genuen. Hezkuntza hizkuntzen iraupenerako giltzarri dela ikusita, komunitatearen indarrak eta erresilientziak gaur egungo egoerara nola ekarri gaituen jabetzeko. • Ondorengo taldeka egin zuten galdera-erantzunen jarduera izan zen, euskarak hezkuntza eremuan gaur egun duen presentziaz jabetzeko. • Egunari amaiera emateko, euskarak hezkuntza eremuan duen presentziaren bueltan Beatriz Egizabalek ondutako bakarrizketa ikusi genuen. • Bukaeran, "Ibaetako Euskaltzaleen Plaza"ko (IEP) kideak igo ziren oholtzara, ikasleei beren jardunaren berri eman eta elkartzeko gonbita egiteko.
5	Murgiltze astearen balorazioa egitea, era sortzaile eta umoretsuan, eta talde guztiek elkar ezagutzea.	• Azken eguna "World Cafe" bat eginez hasi genuen, astean zehar ikusitakoei buruzko hausnarketa egiteko eta ondoren sortu behar zuten bideokliperako ideiak biltzeko. • Jarraian, taldeka jarri eta memeak sortu zituzten aurreko hausnarketan bildutako ideiak oinarri hartuta. • Eguneako jarduera nagusia bideoklip musikalen txapelketa izan zen. Hasteko, taldeka jarri eta, astean zehar landutako edukiekin edo hausnarketekin, abestiaren letra asmatu zuten. Ondoren, teknologiaren laguntzaz, bideoklipak sortu zituzten. • Lehiaketako finalurreko gisa, ikasleek sortutako ekoizpen bat aukeratu zen ikasgela bakoitzean. Finalerako, parte-hartzaile guztiak Areto Nagusian elkartu ziren eta kanporaketan aurrera egindako ekoizpenen artetik bat aukeratu zen irabazle gisa. • Asteari amaiera emateko bukaerako galdetegia bete zuten parte-hartzaileek.